



AIETE KULTUR ETXEA

2015ean Aiete Kultur Etxeak bere ibilbidea mantendu eta sendotu egin zuen, beti ere, proposamen berriei tarte eskainiz. Modu honetan, lankidetzaren sarea indartzen jarraitu zuen, programazioa eta zerbitzua hobetuz.

Erakusketa nagusien ildoak indartsu jarraitu zuen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearekin duen konpromisoan: **Nazien presentzia Bidasoan**, II. Mundu Gerraren amaieraren 70. urteurrena dela; **Saharako ahotsa, ahanzturaren kontrako erresistentzia**; eta Gervasio Sánchezen eta Mónica Bernabéren **Emakumeak. Afganistan**, dira elkarlanean sortutako erakusketen adibide esanguratsuenak.

2014an bezala, Emaus Gizarte Fundazioa taldearekin lankidetzaren antolatutako nire etxea erakusketa. Birziklatutako materialekin egindako lan artistikoetan, artea, birziklapena eta eragin soziala landu ziren, besteak beste.

Erakusketen atala amaitzeko, nabarmentzekoa da, **Star Wars Aiete** erakustaldia, lehen aldiz Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin batera antolatua. Bildumagile amorratu bati esker, umeei, gazteei eta helduei esperientzia dibertigarria gozatu zuten eta erakusketa arrakastatsua izan zen.


Ilustratzailearen txokoa, berriz, ilustratzaileen ametskin gozatzeko aukera izan zen (**Belén Lucas, Leire Urbeltz, Marraz(i)oa** ilustratzaile topaketak eta **Asun Balzola**). Azpimarratzekoa da **Asun Balzolari** buruzko txokoa, Haur liburutegiarekin elkarlanean eginda eta Mariasun Landari eginiko elkarrizketa batekin osatuta.

Ikastaroen atalean, Aiete kultur etxeak Giza Eskubideen arloan espezializazioan sakontzen jarraitu zuen. Horrela, Gobernantza Demokratikoaren Institutuaren aholkularitzarekin, **Ekialde ertaineko gatazka ulertzeko klabeak eta bere eragina munduan** ikastaroak, gaurkotasuneko gaiari heldu zion eta harrera ezin hobea izan zuen. Bestalde, **Guztion Ongiaren Ekonomia** delakoa ezagutzeko ikastaroan Christian Felber, pentsamendu honen aitzindaria eta sortzailea, izan zen irakasle.

Oro har, Aiete Kultur Etxeko ikastaroen eskaintza eta izen-emate kopurua handitu egin zen, eta, aipatzekoa da, egile ikastaroek eskaintza osatu eta aberastu zutela eskaintutako kalitateagatik eta kantitateagatik.



Erakusketa: **Nazien presentzia Bidasoan. II Mundu Gerraren amaieraren 70. urteurrena**
(Bakearen eta Giza Eskubideen etxea, Udala, San Telmo, DSS2016EU)



Star Wars Aiete erakusketa

2015eko **Olatu Talkan** Aiete auzoak leku berezia izan zuen Miramongo basoan, **Basoka folk** jaialdia izan baitzen eta bertan, 300 pertsona elkartu ziren natur gunexarmagarriaz gozatuz.

Hiriko jaialdiak ere izan zuten leku Aieten: **Erlijio-Musika, Poltsiko Antzerkia, Donostikluba zirkuitua, edo Antzerkia Klean**, esaterako. Aipatzekoa izan zen **Literaktum** jaialdian, **Iñaki Zubeldiaren** eta **Xabier Olasoren** haur-ipuinen idazle ospetsuekin egitasmoa, hurrei zuzendutakoa. Egileek euren ipuinak kontatu zituzten jatorrizko ilustrazioz girotuak eta zeinuhizkuntza erabiliz.

Aiete Kultur Etxeak, hurrei eta nerabeei zuzendutako hainbat egitasmo bultzatu zituen. Liburutegiak, haurren irakurzaletasuna sendotzeko eta bultzatzeko xedarekin, ohiko programez gain, **Ipuin magikoak** jarduera berria eskaini zuen. Bertan, umeak literaturaren eta musikaren giroan murgildu ziren, ipuin kontalaria, zeinu hizkuntza eta musika instrumentuak erabiliz, gozamen txoko magikoa bihurtu zen liburutegia eta oso jarduera arrakastatsua izan zen.

Ildo berriei dagokionez, aipatzekoa da ere, musikari lotuta egon diren **Musiklasik** kontzertuak. Bertako musikariek, txalaparta, harpa, pianoa, poesia edo ahots bereziekin emanaldi bikainak gozatzeko aukera eskaini dute.

Bestalde, Hautxoko eta Gazteleku zerbitzuek ekimen ugari egin zituzten, bai eguneroko ekintzetan, bai epe luzeko proiektuetan. Haurrek eta gazteek programazioan garrantzia izateaz gain, **Zure zuhaitza, Aiete Faktor, Zibergune, Buruhaundi eta Errandoiak** eta **Txorien Etxolak** bezalako proiektuak aurrera eramane zituzten. Ekintza hauetan guztietan, elkarbizitza, esfortzua, laguntasuna, komunitatearekiko jarrera parte-hartzailea, aktiboa eta arduratsua izan ziren ardatz, euskara oinarri izanik.

Horrez gain, Aieteko Caritasekin, Afrikako Malaboko eskolarako material bilketa egiten jarraitu dute, baita **Gabonak Zuretzat** programan eta auzoko ekimenetan parte hartzen ere. Hau Guztia modu hezitzaile eta ludikoan, haurrek eta gazteek ondo pasatzen dutela ziurtatuz.

Laburbilduz, Aiete Kultur Etxeak, bere zerbitzuekin eta programazioarekin hiritarren eskaerei erantzun zien, kultura eta aniztasuna sustatuz.



Ilustratzailearen txokoa: **Asun Balzola**



Olatu Talkako **Basoka** ekitaldia Miramongo basoan.



Literaktum Jaialdia: **Xabier Olaso** bere ipuina kontatzen

DATUAK

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	383	37.223
Antzerkia	18	2.001
Bideoa	84	3.096
Musika	11	2.534
Hitzaldiak	6	499
Ikastaroak eta tailerrak	50	5.325
Erakusketak	17	18.047
Elkarteen bilerak eta jarduerak	107	3.716
Liburutegiko jarduerak	90	2.005
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	308	72.380
Liburutegiko bisitariak		65.027
Hautxokoa	158	4.842
Gaztelekua	50	2.511

Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua: **16**

PRESTAKUNTZA EMAKUMEAK

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	50	393	14	54	36	339
2014/2015 ikastaroak	16	150	2	17	14	133
2015/2016 ikastaroak	34	243	12	37	22	206

PRESTAKUNTZA GIZONAK

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	50	144	14	12	36	132
2014/2015 ikastaroak	16	64	2	15	14	59
2015/2016 ikastaroa	34	80	12	7	22	73

Bisitariak GUZTIRA: **109.603**